



Alter de Kooning, 1968

Komisarioa / Comisariado: **Laura Fernández Orgaz**
Kordinatzailea / Coordinación: **Yolanda de Egoscozabal**
Garraioa / Transporte: **TTi**
Muntaketa / Montaje: **Arteka Une eta Gestioa**
Aseguruak / Seguros: **Aón Gil y Carvajal**

JARDUERAK / ACTIVIDADES

Dream of Life pelikularen aurkezpena eta proiektzioa, Steven Sebring pelikularen zuzendariaren eta Patti Smithen eskutik / **Presentación y proyección de la película Dream of Life** por parte de Steven Sebring, director del film, y de Patti Smith. Abenduaren 5ean. 20:00etan / 5 de diciembre. 20:00 h

Patti Smithen **poesia errezitaldia / Recital poético** de Patti Smith
Abenduaren 6an. 21:30ean / 6 de diciembre. 21:30 h

Patti Smithen musikari buruzko hitzaldia. Hizlaria, Ricardo Aguilera, *Rictus*, musikako kazetaria eta Cajón de Músicas izeneko irratsaioaren zuzendaria / **Conferencia sobre la música de Patti Smith**, impartida por Ricardo Aguilera, *Rictus*, periodista musical y director del espacio Cajón de Músicas. Urtarrilaren 13an. 20:00etan / 13 de enero. 20:00 h

Dancing Barefoot. Zuzeneko dantza eta musika, erakusketa aretoetan / **Dancing Barefoot**. Danza y música en directo en la salas de exposición. Urtarrilaren 15ean. 20:00etan / 15 de enero. 20:00 h

Patti Smithen poesiari buruzko hitzaldia. Hizlaria, UPV/EHUko irakaslea eta *Texturas* aldizkariaren zuzendaria / **Conferencia sobre la poesía de Patti Smith** impartida por Ángela Serna, profesora de la UPV/EHU y directora de la revista *Texturas*. Urtarrilaren 20an. 20:00etan / 20 de enero. 20:00 h



ekoizleak / coproducen:



www.artium.org

museo@artium.org • tel: 945 20 90 20 • Francia, 24. 01002 Vitoria-Gasteiz

Asteartetik igandera eta jaiegunetan 11:00etatik – 20:00etara etenik gabe
Jaiegun ez diren astelehenetan itxita

De martes a domingo y festivos de 11:00 h a 20:00 h ininterrumpido
Lunes no festivos cerrado

Txartel-leihatila, Zentro-Museoa itxi baino ordu erdi lehenago itxiko da
La taquilla cierra media hora antes del cierre del centro-museo

Zentro-Museoko sarrera-txartelarekin audiogida doan (kopuru mugatua)
Audioguía gratuita con la entrada del Centro-Museo (nº limitado)

TARIFAK / TARIFAS

Arrunta / Normal: 4,5 €

Murriztua / Reducida: 2,2 €

Doakoa / Gratuita: Kide elkartuentzat, babes erakundeentzat eta 14 urtez azpikoentzat


Miembros Asociados, entidades de patrocinio y menores de 14 años

Asteazkenetan, «ZUK NAHI DUZUNA» € 0,01 gutxienez

Miércoles «TÚ DECIDES» mínimo 0,01 €

Denda, aparkaleku publikoa
Tienda, parking público

Kafetegia eta jatebexea:
Cafetería y restaurante: **CUBE**



PATTI SMITH
Written Portrait



Abenduaren 5etik 2009ko otsailaren 22ra
Del 5 de diciembre al 22 de febrero de 2009

Erakusketa aretoan sartzean deigarria gertatzen den lehendabiziko gauza, horman espazioak lotuz eta bisitariari ongietorria eginez dauden hiru leihoak dira. Hiru hutsarte horiek, eta erakusketan zehar dauden beste batzuk, ez dira nolanhahi kokatu. Aitzitik, funtsezko eginkizuna dute, ikusgai dauden atal batzuk eta besteak –ikus-arteak (erakusketaren ardatz nagusia), poesia eta musika– lotzea eta metaforikoki beren artean dagoen harremana agerian uztea, hain zuzen ere. Hiru adierazpide horiek hitzaren bidez lotzen dira Patti Smithen lanean.

Written Portrait artistari buruz Espainian egiten den lehendabiziko atzerabegirako erakusketa da. Hirurogeietako hamarkadaren erdi aldera egin zituen marrazkiekin abiatzen da, sorkuntzaren munduan eman zituen lehen pausoeekin, hain zuzen ere. Marrazkiak, batzuetan espresionistak eta, beste batzuetan, samur eta intimistak, zenbait pertsonaia ospetsu edo adiskideri egindako omenaldiak dira, esate baterako Willem de Kooning artistari, Robert Mapplethorpe adiskideari edota Arthur Rimbaud poetari. Beste batzuei zentzu espiritual bat darie, eta erlijiozko gaietan oinarriturik egoteak eta kaligrafia sotil bat erabiltzeak –batzuetan papera erabat betez – areagotu egiten du kutsu hori. Patti Smithentzat hitza komunikaziorako bidea da, baina baita adierazpen estetikoa ere.

Azken urte hauetan, argazkiak egiteari ekin dio Pattik teknologia errazeko Polaroid Land 250 kamera batekin, bere begien arreta erakartzen duena berehala harrapatzeko aukera ematen baitio. Argazkiek –beti zuri-beltzak– bere mundua islatzen dute, artean eta literaturan dituen zaletasunak eta bere bidaiak. Irudi iradokitzaileak dira, batzuetan itxuraz erabat anekdotikoak diruditen objektuak –baina esanahi berezia dutenak– erakusten dituztenak. Etxe barruak, oheak, hilobiak, zurdakiak edota idazmakinak erabiltzen ditu zenbait pertsonaia gogora ekartzeko, esate baterako, Virginia Woolf, Susan Sontag, William Blake edota Arthur Rimbaud. Bidaietan egindako argazkietan, Europako arkitektura monumentalekiko duen interesa, kaleetako bizitza eta natura birjinaren neurrigabetasun zirrarragarria islatzen dira. Garrantzi berezia dute Patti Smithek erakusketa honetarako espreski Vitoria-Gasteizko kaleetan eta Euskadiko beste toki batzuetan egin dituen argazkiek.

Dorre Bikien aurkako atentatuaren ondoren egindako irailaren 11kako serieari eskainitako atalak artistaren alde konprometituena uzten du agerian. Lan hori terrorismo islamistaren aipamen bat izan beharrean, gizakiok komunikaziorako dugun ezintasunaren eta horren ondorio nabarmenen –gerra eta indarkeria– inguruko manifestu zorrotza da. *Leit motiv* gisa eraitsitako dorreetako baten irudia duten marrazki sotil eta poetiko kaligrafiadunek eta serigrafiek osatzen dute serie hori. Ezinbestez datorkigu gogora Brueghel Zaharraren XVI. mendeko Babelgo dorrearen margolana. Mintzaira da gizaki garen aldetik bereizten eta elkartzen gaituena, baina baita ulertzeko modurik ez dagoenean urruntzen gaituena ere. Serie indartsu honek duen eduki unibertsala dela eta, Gernikako bonbardaketarekin eta ondoren Picassok egin zuen margolanarekin dituen antzekotasunak datozkigu gogora. Eta, hain zuzen ere, gertakizun historiko hori eta artelan hori beti interesatu zaizkio Patti Smithi, argazkietako batzuetan ikus daitekeenez.

Alegiazko agertoki baten gainean kokaturik dagoen dokumentazio gunean, argitaratu dituen poesia liburu guztiak ikus daitezke. Ordenagailuetan, berriz, artistari buruzko dossier oso bat dago eta bere disko guztiak entzuteko aukera. Gainera, Espainian eta Estatu Batuetan kaleratutako LP eta *single* direlakoen azalak ere ikusgai daude, bildumagile pribatu bati esker.

Azkenik, Steven Sebring zuzendariaren *Dream of Life* pelikula ikusi ahal izango da, Patti Smithen alde batzuk eta besteak hartuz egindako erretratu osoa. Pattiren objektu pertsonalen argazkiak eta artistaren erretratuak biltzen dituen *Dream of Objctcs* serieak osatuko du zuzendari honek artistari buruz duen ikuspegia.

IPARRA ARETOA

WRITTEN PORTRAIT



Hermann Hesse's typewriter, 2003.

Patti Smith

SALA NORTE

Lo primero que llama la atención al acceder a la sala de la exposición de Patti Smith, titulada *Written Portrait*, son las tres ventanas horadadas en el muro que conectan dos espacios y dan la bienvenida al visitante. Estos tres huecos, y los otros que se han distribuido por los diferentes ambientes, no se han ubicado de manera arbitraria. Todo lo contrario, tienen un sentido fundamental: servir como nexo de unión y marcar metafóricamente la relación entre lo que se expone: artes visuales –eje principal de la exposición–, poesía y música. Tres expresiones creativas que, en el caso de Patti Smith, encuentran un vínculo de unión a través de la palabra.

Written Portrait es la primera retrospectiva de la artista en España, y comienza el recorrido a través de los dibujos más tempranos, a mediados de los sesenta, cuando da los primeros pasos creativos. Sus dibujos, a veces expresionistas, y, otras, delicados e intimistas, homenajean a artistas como Willem de Kooning, a su amigo Robert Mapplethorpe, o a admirados poetas como Arthur Rimbaud. Otros ejemplos transmiten un sentido espiritual, a través de los asuntos religiosos que aborda y que, de algún modo, se ven intensificados con la presencia de una sutil caligrafía que, en algunos casos, inunda todo el papel. La palabra es para Patti Smith un vehículo de comunicación, pero también de expresión estética.

La artista se ha dedicado en los últimos años a la fotografía, obra que realiza con una cámara Polaroid Land 250, de tecnología sencilla, que le permite captar con inmediatez lo que llama la atención de su mirada. Las fotos –siempre en blanco y negro–, ilustran el mundo de Patti Smith, sus pasiones artísticas y literarias, y sus viajes. Son imágenes evocadoras que muestran a veces objetos aparentemente anecdóticos, pero con un significado especial. Interiores domésticos, camas, tumbas, pinceles o máquinas de escribir le sirven a Patti Smith para evocar el arte o la palabra escrita de personajes como Virginia Woolf, Susan Sontag, William Blake o Arthur Rimbaud. Las fotos tomadas en los viajes descubren su inquietud por la arquitectura monumental europea, el pulso cotidiano de las calles o la sobrecogedora inmensidad de la naturaleza más virgen. Cobran especial relevancia las fotos que Patti Smith ha hecho específicamente para esta exposición en las calles de Vitoria-Gasteiz y en otros lugares de Euskadi.

El apartado dedicado a la serie del 11 de septiembre, un conjunto realizado tras los atentados a las Torres Gemelas, revelan el lado más comprometido de la artista. Este trabajo no es una alusión al terrorismo islamista; es un sensible y reflexivo manifiesto sobre la incapacidad humana para la comunicación y su consecuencia más tangible: la guerra y la violencia. La serie se compone de sutiles y poéticos dibujos con caligrafía y de serigrafías que tienen como *leit motiv* una de las torres derruidas. La referencia a la Torre de Babel del cuadro del siglo XVI de Brueghel el Viejo es inevitable. El lenguaje es lo que nos distingue y une como seres humanos, pero también es lo que nos separa cuando no hay posibilidad de entendimiento. El trasfondo universal que posee esta intensa serie hace pensar en los paralelismos que guarda con el bombardeo de Gernika y el posterior cuadro de Picasso, un asunto histórico y una obra de arte que, como se puede observar en algunas de las fotos expuestas, siempre han interesado a Patti Smith.

El área de documentación presenta, sobre un simbólico escenario, las publicaciones de poesía realizadas a lo largo de su carrera. En los ordenadores se puede acceder a un dossier completo sobre la artista, con la posibilidad de escuchar su discografía completa. Además, se muestran varias portadas de LPs y *singles* editados en España y Estados Unidos, pertenecientes a un coleccionista privado.

Por último, se exhibe la película de Steven Sebring, *Dream of Life*, que aborda un retrato completo de Patti Smith desde diferentes perspectivas. La serie *Dream of Objctcs* completa la visión del director sobre la artista, a través de un conjunto de fotografías de algunos de sus objetos personales y varios retratos.